# TESTUINGURUAREN AZTERKETA

# ANÁLISIS DE COYUNTURA

Jatorrizko testua euskaraz egindakoa da
El texto original ha sido elaborado en euskara



LAB

# TESTUINGURUAREN AZTERKETA

2018 Abendua

## NAZIOARTEKO TESTUINGURUA

### Hego Amerika

Arrazoi bat baina gehiago egon daiteke jendearen posizio politikoaren aldaketa azaltzeko, baina Hego Ameriketan gertatzen ari dena ezin da aztertu eta ulertu AEBaren esku hartze zuzena ikusi gabe.

Bolsonarok ultraeskuindarrak irabazi zituen Brasileko hauteskundeak. Ustelkeria, PTaren kudeaketa kaxkarra edota egoera sozialaren degradazioaz gain, AEBen eta oligarkiaren bultzada erabakiorra izan da (Dilma Rousseffen kontrako kolpe "biguna", Lula da Silcvaren espetxeratzea). Brasil funtsezko eragile bat zen AEBaren aurrean Hego Amerikan alternatibaren blokea artikulatzeko. Hortaz, eskuin muturrak gobernua eskuratzeak Brasilen bertan ez ezik, eremu geopolitiko osoan izango ditu ondorioak.

Venezuelan bizi dena gerra ekonomiko bat da, eremu geopolitikoaren kontrol osoa berreskuratzeko AEB eta oligarkia egiten ari direna.

Nikaraguan ezkerra boteretik kentzeko beste herrialde batzuetan oso emankorra izan den gidoia errepikatzen ari dira. Kasu honetan, Brasilen bezala, badira sandinismoari egotzi dakizkiokeen hutsuneak, baina kanpo esku hartzea nabarmena da.

Mexikon Lopez Obradorrek lortutako garaipena da inboluzio dinamika honetan salbuespena. Herri sektoreei begirako lehen mezuak ("ez nazazue bakarrik utzi") eta keinuak (indigenen eskutik aginte-makila jasotzea, Ayotzinapako ikasle desagertuen inguruko ikerketa batzordea) esanguratsuak izan dira, baina ikusteko dago politika ekonomiko eta sozialak sakonki aldatzeko borondatea edota indarra izango duen. Momentuz, Mexicoko aireportu berriaren inguruko operazio espekulatzaile erraldoia geldiarazi du.

# ANÁLISIS DE COYUNTURA

Diciembre de 2018

## CONTEXTO INTERNACIONAL

### Sudamérica

Puede existir más de una razón que explique el cambio de posición política, pero lo que está sucediendo en Sudamérica no puede entenderse y analizarse sin tener en cuenta la intervención directa de EEUU.

El ultraderechista Bolsonaro ganó las elecciones en Brasil. Además de la corrupción, la mala gestión del PT o la degradación de la situación social, el impulso de EEUU y de la oligarquía (el golpe "blando" contra Dilma Rousseff, el encarcelamiento de Lula da Silva) ha sido decisivo. Brasil era un agente fundamental ante EEUU para articular en Sudamérica el bloque de la alternativa ante EEUU. Por tanto, que la ultraderecha se haya hecho con el gobierno tendrá consecuencias, no solo en Brasil, sino también en todo el espacio geopolítico.

Lo que se está viviendo en Venezuela es una guerra económica, llevada a cabo por EEUU y la oligarquía para recuperar el control absoluto del espacio geopolítico.

En Nicaragua están repitiendo el mismo guión que tan buen resultado les ha dado en otros países. En este caso, al igual que en Brasil, hay fallos que pueden achacarse al sandinismo, pero la injerencia exterior es evidente.

La victoria que ha obtenido López Obrador en México es la excepción dentro de esta dinámica de involución. Los primeros mensajes dirigidos a los sectores populares ("no me dejéis solo") y los gestos (recibir el bastón de mando de manos de los pueblos indígenas, el comité de investigación sobre los estudiantes de Ayotzipana desaparecidos) han sido significativos, pero está por ver si tendrá la voluntad o fuerza suficiente para cambiar en profundidad las políticas económicas y sociales. Por el momento, ha detenido la gigantesca operación especulativa del nuevo aeropuerto de México.

## Europa

Brexita gauzatzeko akordioa lortu da. Britania Handiak Europar Batasunatik alde egitea erabaki eta irteera adostu behar izan dute EB osatzen duten estatuen artean. Interes ekonomiko eta geoestrategikoetan oinarritutako erabaki politikoek zuzentzen dute Europar Batasuna, baita estatu berriak sortzeko edo ukatzeko, mugak irekitzeko edo ixteko, kide bezala onartzeko edo kanporatua izateko orduan ere.

Europar Batasuna mugitzen ez den eta aldatzerik ez dagoen errealitate politiko bat bezala aurkezten zaigu Estatu berriak sortzeko aukera aldarrikatzen dugun bakoitzean. Ez da egia, udazkenean ikusi dugu.

Kanakiak bere etorkizunaz erabakitzeko aukera izan du. Oraingoan ezetza nagusitu da baina atea irekia dago, EBaren baitan ireki den atea, Estatu Frantsesak horretarako borondatea izan duenean.

Europako Parlamentua izanda borondate politikoak behartzeko eta mugitzeko joko zelai nagusietako bat, Europako nazioen arteko lankidetzarako deiak indartzen ari dira Europako hauteskundeen testuinguruan.

Trump fenomomenoak hauspotuta, Europako testuinguruan ultraeskuina gero eta indartsuagoa da. Frantziako Estatuan, Italian, Polonian, Danimarkan…. baita Espainiako Estatuan ere. Ziur gaude ez dagoela arrazoi bat eta bakarra gertatzen ari denaren atzean, eta eztabaidan apenas agertzen den errealitate bati erreparatu nahi diogu. Zaila egiten zaigu gertatzen dena ulertzea eta aztertzea bizitzaren prekarizazio prozesu latzari begiratu gabe.

Indarrean dagoen eredu heteropatriarkal eta kapitalistan desorekak gero eta handiagoak dira. Prekarizazio prozesuak eta jadanik kaxkarra zen Ongizate Estatuaren likidazioak bizi baldintzak nabarmen okertu ditu, orain arteko bizimodua arriskuan ikusten du geroz eta jende gehiagok, orain arte zuen gutxia galdu du beste askok.

Elite ekonomiko baten mesedetan geroz eta sektore herritar gehiagok euren bizi baldintzetan

## Europa

Se ha conseguido un acuerdo para llevar a cabo el Brexit. Tras decidir que Gran Bretaña saliese de la Unión Europea, los Estados que forman la UE han tenido que acordar de qué forma se va a llevar esto a cabo. Las decisiones políticas que dirigen la UE están fundamentadas en intereses económicos y geoestratégicos, también a la hora de permitir o denegar la creación de nuevos Estados, abrir o cerrar fronteras o ser aceptado o expulsado como miembro.

La Unión Europea se nos muestra como si fuese una realidad inamovible e inalterable cada vez que reivindicamos la posibilidad de crear nuevos Estados. Esto no es cierto, tal y como hemos comprobado este otoño.

Kanaky ha tenido la oportunidad de decidir sobre su futuro. Esta vez ha ganado el "no", pero las puertas de la autodeterminación se han abierto, lo que ha sucedido dentro de la Unión Europea cuando el Estado Francés ha tenido voluntad para ello.

Siendo el Parlamento Europeo uno de los principales campos de juego para forzar y mover voluntades políticas, las llamadas a la colaboración entre las naciones sin Estado se están multiplicando en el contexto de las elecciones europeas.

Impulsado por el fenómeno Trump, también en Europa la ultraderecha está tomando cada vez más fuerza. En el Estado Francés, Italia, Polonia, Dinamarca... y también en el Estado Español. Es seguro que no se esconde solamente una razón detrás de lo que está sucediendo, pero queremos fijarnos en una realidad que no suele surgir en el debate. Nos resulta complicado entender y analizar este suceso sin detenernos en el brutal proceso de precarización de la vida.

Los desequilibrios del modelo heteropatriarcal y capitalista son cada vez mayores. El proceso de precarización y la liquidación de un Estado de Bienestar que de por sí ya era bastante raquítico ha empeorado las condiciones de vida notablemente. Cada vez más gente ve en peligro el modo de vida que llevaba hasta la fecha y otras muchas personas han perdido lo poco que tenían.

Cada vez más sectores de la población sufren retrocesos en sus condiciones de vida en favor de

atzerapausoak izan dituzte. Indartu beharreko alternatiba sistemaren aldeko borroka izan beharko luke, baina horretarako oztopoak nabarmenak dira. Sozialdemokraziaren kasuan, oinarri neoliberalak bere egin izanak sistemaren parte bilakatu du eta, ondorioz, ez du sinesgarritasunik sistemaren kalteak pairatzen duten askotariko sektoreei begira. Ezker eraldatzailea, berriz, ez da gai alternatiba sendo bat egituratzeko.

Bien bitartean, euren herrialdeak uztera behartu dituzten herritarren kontrako jazarpen politikari jarraipena ematen zaio. Interes politikoen arabera agenda mediatikotik agertu eta desagertzen diren gertakariak izaki, ezinbestekoa da gogoan izatea errefuxiatuen eskubideen urraketak ez duela etenik. Hori bai, enpresariek lan esku merkearen premia adierazten dutenean, orduan bai entzuten ditugula "etorkinak behar ditugu" ildoko diskurtso hipokritak.

una elite económica. La alternativa que debería impulsarse debería ser luchar contra este sistema, pero los obstáculos para ello son evidentes. En el caso de la socialdemocracia, han hecho suyos los fundamentos neoliberales, lo que ha provocado que se conviertan en parte del sistema y, por tanto, carece de legitimidad ante los múltiples sectores que padecen los daños de ese sistema. La izquierda transformadora, por otra parte, no es capaz de configurar una alternativa consistente.

Por el contrario, la ultraderecha cada vez encuentra más espacio para sus políticas. Están planteando una especie de disputa entre la llamada clase media -sector fuera de esa elite económica- y distintos grupos de trabajadoras y trabajadores. En esta pugna los sectores más perjudicados son los que más sufren. Así, están penetrando con facilidad los discursos contra las personas migrantes; los discursos contra las mujeres, según va avanzando el feminismo; los discursos homófobos etc.

## TESTUINGURU EKONOMIKO ETA SOZIALA

### Frantziako estatuan matxinada soziala

Trantsizio ekologikoaren izenean erregai fosilei zerga berria ezartzeak garraiolarien eta herritarren haserrea piztu du. Eskaera nagusiak orokorrean zergak jeistea eta abestasun handiei zerga berezartzea izan badira ere, haserre sozial honen atzean krisi sozial sakonago baten eragina zenbaterainokoa den aztertu behar da.

Nagusiki sare sozialen bidez antolatu den erantzuna Estatu krisi berria ekarri duen matxinada oso bihurtzen ari da. Matxinada diogu, ez dirudielako mugimendu sozial jakin eta antolatua dagoenik honen guztiaren atzean.

Alderdi politikoak jokoz kanpo harrapatu ditu krisi honek, baita sindikatuak ere. Ezin dugu ezkutatu CGTk abenduak 14rako manifestazioa deitu arren, mugimendu sindikala ere lekuz kanpo dagoela aspaldiko borrokaldi sozial handienean. Borrokarako baldintzak hor daude, eskaintzak, ereduak eta proposamenak aztertzeko premia erakusten dute txaleko horiek.

## COYUNTURA ECONÓMICA Y SOCIAL

### Revuelta social en el Estado Francés

La imposición de un nuevo impuesto en nombre de la transición ecológica ha suscitado el enfado de ciudadanía y transportistas. Aunque la reclamación principal haya sido la bajada de impuestos junto a retomar el impuesto a las grandes fortunas, hay que analizar una crisis social más profunda que se esconde tras ello y hasta dónde se extiende ésta.

La respuesta, que se ha organizado fundamentalmente por medio de las redes sociales, está convirtiéndose en una revuelta que ha provocado una nueva crisis en el Estado. Y decimos "revuelta", porque no parece haya ningún movimiento social concreto y organizado detrás de todo esto.

Esta crisis ha cogido a los partidos políticos fuera de juego, así como a los sindicatos. No podemos ocultar que, aunque el sindicato CGT llamase una manifestación para el día 14 de diciembre, el movimiento sindical también se encuentra fuera de juego desde hace tiempo en lo que se refiere a las grandes luchas sociales. Las condiciones para la lucha están ahí y estos chalecos amarillos demuestran la necesidad de analizar las ofertas, modelos y propuestas.

Gobernuaren agenda hankaz gora jarri dute, krisi politiko sakona eragin dute, Macronen dimisio eskaera indarra hartzen joan da. Zaila du Macronen gobernuak krisia ohiko bideetatik itzaltzea edo konponbidean jartzea. Ez dago eledunik, ez dago interlokutore jakinik, negoziazio prozesurik ezin ireki. Gobernuak orden publikoaren eremura eraman nahi izan du hasieratik eztabaida, baina ezinezkoa izan dute.

Gobernuak moratoria bat ezarri behar izan du eta erregai fosilei ezartzen zaien zergaren aplikazioa 6 hilabetez atzeratuz lehenik, zerga berria bertan behera utziz ondoren eta "emergentzia sozial" egoerari aurre egiteko neurri sozialak iragarriz azkenik. Ikusi beharko da mugimendu honen bilakaera zein den, aldarrikapenak zabaltzen ari dira: gutxieneko soldata, pentsioak... Badira hauteskundeetarako jauzia eman nahi duenik ere.

CGT eta FO sindikatuek greba iragarri dute. Gobernuaren iragarpenak ez nahikotzat jotzen dituztelako eta aparteko orduen gaineko desadostasunak medio. Badirudi mobilizazio sozialean dagokien lekua eskuratzeko beharra egon daitekeela erabaki horren atzean.

Mugimendu honen hainbat galderek erantzun argirik ez zutela ikusita, LABetik zuhurtziaz jokatzea erabaki dugu eta lehentasuna gure borroka sindikalean jarri dugu, prekarietateari aurre egiteko Piztu Alarma ekimenaren baitan.

## Krisialdi berri baten mehatxua begibistatik kendu ezinik, moteltze ekonomikoa

Eusko Jaurlaritzaren informeetan berretsi egiten da moteltze ekonomikoa benetakoa dela, leuna bere hitzetan, baina erreala. Industriaren bilakaerak moteldu du ekonomia eta Jaurlaritzak kanpoko faktoreetan kokatzen ditu arrazoiak. Muga zergen inguruan bota diren mehatxuak, Europako herrialde batzuetan bizi diren tentsioak eta populismoaren gorakadak lehiatzeko testuingurua gaiztotu dutela aipatzen ditu azaroko "kointura di-da batean" dokumentuan.
Ziur gaude horiek gertatzen direla, baina bertan ematen diren arazoei ez begiratzea industria

Han puesto patas arriba la agenda del Gobierno y han promovido una crisis profunda, por la que la petición de dimisión de Macron ha ido tomando fuerza. El Gobierno de Macron tiene difícil aplacar o intentar solucionar esta crisis por las vías habituales. No hay portavoz o interlocutor concreto, por lo que no puede abrir un proceso de negociación. El Gobierno ha intentado llevar el debate en un principio al campo del orden público, pero les ha sido imposible.

El Gobierno ha tenido que implantar, en un principio, una moratoria para retrasar por 6 meses el impuesto sobre los combustibles fósiles; después ha tenido que derogar este nuevo impuesto y, por último, ha anunciado medidas sociales para hacer frente a la situación de "emergencia social". Tendremos que ver cuál va a ser el desarrollo de este movimiento, ya que las reivindicaciones se están ampliando: salario mínimo, pensiones... Y hay incluso quien se plantea presentarse a las elecciones.

Las secciones de transporte de los sindicatos CGT y FO han anunciado que saldrán a la huelga. Ya que consideran que el anuncio del Gobierno es insuficiente y, además, en protesta por el decreto sobre las horas extra. Parece que detrás de esta decisión puede estar la necesidad de recuperar el lugar que les corresponde en torno a la movilización social.

Viendo que diversas preguntas sobre este movimiento no tienen una respuesta clara, en LAB hemos decidido actuar con prudencia y que la prioridad siga siendo nuestra lucha sindical, dentro de la iniciativa para hacer frente a la precariedad "Piztu Alarma".

## Desaceleración económica y amenaza de una nueva crisis en el horizonte

En los informes del Gobierno Vasco se confirma que la desaceleración económica es una realidad, aunque "suave", en sus propias palabras. La evolución de la industria ha aminorado la economía y el Gobierno Vasco sitúa las razones de esto en factores externos. Según expresa en el documento "Coyuntura en un clic" de noviembre, "las amenazas arancelarias, las tensiones en algunos países europeos y el avance del populismo han enrarecido el contexto en el que compite el sector industrial".
Sabemos que todo eso está sucediendo; sin embargo, no reparar en los problemas que suceden aquí no

arlorretan jaurlaritzaren politika arduragabearen beste erakustaldia dela salatu behar dugu

La Navalen berriro ikusi dugu bideragarria den eta estrategikoa izan beharko lukeen enpresa bat galduko dugula berriro ere sektore publikotik ez delako behar bezala babestu. Gainera La Navalen bideragarritasun faltak azpikontratetan lan egiten duten langileengan (2.000 inguru), eskualdean eta Bizkaia osoan izango duen eraginak, benetan kezkatzekoa den egoera uzten du.

Automozio sektoreari begiratuz gero, kezkak larriagoak dira oraindik. Sektorean 57000 langilek jarduten dute zuzenean edo zeharka. Pisu ekonomiko handia du beraz, baina are eta handiagoa da inguruko ekonomian duen eraginagatik. Madriletik diesel eta gasolina autoak 2040an debekatuko direla esateak erakusten du sektorearen birmoldaketa oso baten aurrean gaudela. Sektorean aurreneko estualdiak etorri direnean langileon bizkarrera birmoldatuko dela ikusi dugu, EEEen garaietara itzuliko garela iragarri dutelako. Eta oraindik ez dugu ezer ganorazkorik entzun Jaurlaritzako arduradun ekonomikoen aldetik.

Gauzak horrela, Industria 4.0 inguruko diskurtsoa gehiago da propaganda ariketa, industria politika eraginkorra baino.

es más que otra muestra de la política industrial irresponsable que lleva a cabo el Gobierno Vasco.

Hemos vuelto a ver con La Naval cómo vamos a perder una empresa que es viable y que debería ser estratégica, nuevamente porque desde el sector público no se ha protegido como debería. Además, el efecto que va a provocar esto para las trabajadoras y trabajadores de las subcontratas (unas 2.000 personas), para la comarca y para el conjunto de Bizkaia nos reporta una situación verdaderamente preocupante

Si miramos al sector de la automoción, la preocupación es aún mayor. En este sector trabajan 57.000 personas de manera directa o indirecta. Por tanto, tiene un gran peso, que se multiplica, asimismo, por el influjo que ejerce en la economía de alrededor. Que desde Madrid se haya advertido que a partir de 2040 estarán prohibidos los coches de diesel y gasolina nos sitúa ante una completa remodelación del sector. Ya hemos visto cómo las dificultades anteriores se han resuelto a costa de las trabajadoras y trabajadores y ya han anunciado que volveremos a un tiempo de aplicación de EREs. Y todavía no hemos escuchado absolutamente nada de fundamento por parte de las y los responsables económicos del Gobierno Vasco.

Así las cosas, el discurso de la industria 4.0 es más un ejercicio de propaganda que una política industrial efectiva.



## Aurrekontuak

Aurrekontuak aurrera ateratzea izaten da udazkeneko ariketa ekonomiko nagusia. EAE zein Nafarroan aurkeztu dituzten aurrekontu proiektuak aztertzerakoan, aurreko urteetakoen bide beretik doazela ikusi dugu. Abiapuntuko hutsuneak mantentzen dira:

- Eztabaida gastuetara mugatzen da eta sarrerei buruzko eztabaidarik ez da egin nahi, horrek zerga politikari buruz hitz egitea dakar. Bereziki atzerakoia eta patronalaren neurrikoa da EAEn EAJ, PSE eta PPk egin zuten zerga erreforma. Sozietateen gaineko zerga murriztu zuten eta horrek bilketan izango dituen eraginak, bereziki datozen urteko aurrekontuetan somatuko dira. Nafarroan, berriz, PFEZn erreforma egin bai baina ez da Sozietateen eta Kapitalaren errenten gaineko zergak handitzeko erabakirik

## Presupuestos

Sacar adelante los presupuestos es el ejercicio económico principal del otoño. A analizar los proyectos presupuestarios que se han presentado tanto en la CAV como en Nafarroa, hemos constatado que siguen por la misma senda de los años anteriores. Se mantienen las mismas deficiencias de partida:

- El debate se limita a los gastos, porque no se quiere realizar ninguno en torno a los ingresos, ya que esto supone que se tenga que hablar sobre la política fiscal. La reforma fiscal que llevaron a cabo en la CAV PNV, PSE y PP es especialmente regresiva y a medida de la patronal. Redujeron el impuesto de sociedades y los efectos de la misma tendrá su reflejo, sobre todo, en los presupuestos del año que viene. En Nafarroa, por su parte, se ha realizado una reforma del IRPF, pero no se

hartu, patronalaren aldeko Geroa Bairen jarrera agerian utziz.

- Ez dira aurrekontu burujabeak. Gastu topearen muga errespetatu eta zorra ordaintzeari lehentasuna ematen zaio. Nafarroak itunaren birnegoziaziotik berreskuratutako dirua inbertsioetara bideratu nahi izan duenean, 113 milioi eurotik 35,5 baino ez da baimendua izan, egungo estatusaren gabeziak agerian utziz.

- Ez dira aurrekontu partehartzaileak. Nafarroan KES biltzen zen egunean protesta bileran parte hartzeari uko egin genuen.

ha tomado ninguna decisión en torno a subir los impuestos sobre las rentas de capital y las sociedades. Lo que deja patente la postura favorable a la patronal de Geroa bai.

- No son unos presupuestos soberanos. Se respeta el techo de gasto y se da prioridad al pago de loa deuda. Cuando Nafarroa ha querido dirigir el dinero recuperado por medio del convenio a inversiones, de 113 millones solamente se ha permitido invertir 35,5, lo que deja al descubierto las deficiencias del estatus actual.

- No son unos presupuestos participativos. En Nafarroa hicimos una protesta el día en que se reunía el CES y nos negamos a tomar parte de la reunión.

LABetik lehentasunezko neurri batzuk eskatu genituen: enplegu duintzeko eta soldata arrakalari aurre egiteko (1.200€ gutxieneko soldata kontuan hartuz); babes soziala handitzeko eta 1.080€ gutxieneko pentsioa bermatzeko; sektore publikoko enplegua egonkortzeko eta langileek galdutako eros ahalmena berreskuratzeko eta industria politika eraginkorrago baterako. Helburu hauen arabera baloratuko dugu aurrekontuen azken emaitza.

En LAB exigimos varias medidas prioritarias: para dignificar el empleo, hacer frente a la brecha salarial, así como tener en cuenta un salario mínimo de 1.200 euros; para aumentar la protección social y garantizar una pensión mínima de 1.080 euros; para consolidar el empleo en el sector público y recuperar el poder adquisitivo que han perdido trabajadoras y trabajadores, o para una política industrial más efectiva. Valoraremos el resultado último de los presupuestos según estos objetivos.



EAEko aurtengo negoziazioa ez da ohikoa izan. EAJk aurreko urteko aurrekontu proiektu beretsua aurkeztu arren, ez zuen behar besteko bozkarik zirutatua izan, PPk aurrekontuak ez babesteko erabakia hartua baitzuen. Arrazoia Madrilen EAJk Rajoyren kontrako zentsura mozioa babestu izana da.

La negociación de este año en la CAV ha sido excepcional. El PNV no tenía los votos necesarios asegurados, pese a presentar el mismo proyecto de presupuestos del año anterior. El PP decidió no apoyar los presupuestos. La razón era que el PNV defendió en Madrid la moción de censura contra Rajoy.

Eztabaida EAJ eta EHBilduren artean egon da. EHBilduk bi abstentzio eskaini zituen aurrekontuei bide emateko, beti ere pentsioetan, enpleguan.... neurri zuzentzaileak hartzen baziren. EHBilduk daukan pisu politikoa erabili nahi izan du kalean dauden aldarrikapenei heldu eta behar sozial batzuei aurre egiteko.

El debate ha estado entre el PNV y EH Bildu. EH Bildu ofreció dos abstenciones para aprobar los presupuestos, siempre y cuando se tomaran medidas correctoras en materia de pensiones, empleo… EH Bildu ha querido utilizar su peso político para poner sobre la mesa las reivindicaciones que están en la calle y darles respuesta.

Azkenean ez da akordiorik egon. Akordiorik ezaren erantzukizuna EAJrena da eta ez beste inorena, eta aurrekontuen luzapena porrota da beraientzat.

Al final, no ha habido acuerdo. La responsabilidad del no acuerdo es del PNV, no de ningún otro, y la prórroga de los presupuestos es un fracaso para ellos.

Jaurlaritzak patronalaren estrategiari men egiten diola agerian geratu da berriro ere. Ez da ahaztu behar

Ha quedado en evidencia, una vez más, que el Gobierno Vasco está supetitado a la estrategia de la

enpresarien aldetik ahots kualifikatuek luzapenaren alde egin izan dutela. Agenda politikoan egon diren lehentasunei heldu, aurrekontuen norabidea aldatzen hasi eta aurrekontu sozialagoak egiteko borondate politikorik eza erakutsi dute. Aurrekontu sozialagoak diogu eta ez aurrekontu sozialak.

## Elkarrizketa soziala

### Estatu mailan

Estatu mailan, azken lan erreformek ekarri dituzten 13 atzerapausutatik 3 zuzentzeko akordioa iragarri du CCOOek. Aldaketa oso mugatua litzateke, beraz, eta ez luke aldaketarik ekarriko estatalizazioa ahalbidetzen duten artikuluetan. Baina, gainera, patronalak argi azaldu du bere kontrakotasuna eta ikusteko dago Gobernuak, bere ahuldadean, zer nolako ibilbidea egingo duen. Edozein kasutan ere, argi dago lan erreformaren eta estatalizazioaren kontrako borroka ezin dela utzi Madrilen batzuek eta besteek egingo dutenaren esku. Espainiako Kongresuak har ditzakeen erabakien inguruko espektatibak sortu beharrean, ELAk egin duen bezala, Euskal Herrian bertan lan harremanetarako esparru propioaren aldeko borroka egitea da LABen apustua.

### EAEn

Elkarrizketa instituzionalizatzeko dekretuak aurrera darrai. LABek bertan behera uztea eskatu du hiru arrazoi nagusigatik:

- Gune horren helburua patronala eta Jaurlaritzaren politikak zilegiztatzea da eta ez helburutzat langileoi bizi eta lan baldintza duinak bermatzea

- Inolako injerentziarik gabe marko propioa baterako eskubidea eta LHBSEE (Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua) eraikitzeko helburua ez ditu bermatzen.

- Antidemokratikoa da. Gutxiengo sindikalaren alde egiten du bai osaketan eta baita erabakiak hartzerako orduan ere (sindikatu bakar batekin erabakiak har daitezke). Hau instituzioetara eramanda pentsaezina izango litzateke.

Gaiaren larritasuna ikusita, talde parlamentari desberdinekin egin dugun errondan iniziatiba

patronal. No hay que olvidar que voces cualificadas del ámbito empresarial abogaban por la prórroga. Han mostrado una nula voluntad política para acometer las prioridades que están en la agenda política, empezar a cambiar la dirección de los presupuestos y elaborar unos presupuestos más sociales. Hablamos de presupuestos más sociales, no de presupuestos sociales.

## Diálogo social

### A nivel estatal

En el Estado, de entre los 13 retrocesos que han supuesto las últimas reformas laborales, CCOO ha anunciado un acuerdo para reconducir 3 de ellos. Supone un cambio muy limitado, por tanto, y no conllevaría ningún cambio en los artículos que se refieren a la estatalización. Pero, además, la patronal ha expresado claramente su disconformidad y está por ver cuál va a ser el camino que va a recorrer el Gobierno con su debilidad. En todo caso, está claro que la lucha contra la reforma laboral y la estatalización no puede dejarse en manos de lo que hagan una parte o la otra en Madrid. En lugar de crear expectativas sobre las decisiones que el Congreso pueda tomar, tal y como ha hecho ELA, la apuesta de LAB es luchar a favor de un marco propio de relaciones laborales en Euskal Herria.

### CAV

El decreto para institucionalizar el diálogo social sigue adelante. LAB ha exigido que se revoque por tres principales razones:

- El objetivo de ese ámbito es legitimar las políticas de la patronal y del Gobierno vasco y no garantizarnos a trabajadoras y trabajadores unas condiciones de vida y trabajo dignas.

- No garantiza el derecho a un marco propio sin injerencias de ningún tipo ni el objetivo de crear un MVRLPS (Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social).

- Es antidemocrático. Favorece a la minoría sindical, tanto en su composición, como a la hora de tomar decisiones (pueden tomarse decisiones con el apoyo de un solo sindicato). Esto, llevado a las instituciones, sería impensable.

Viendo la gravedad del tema, en la ronda que hemos realizado con distintos grupos parlamentarios hemos

politikoak eskatu ditugu. EH Bildu eta Podemosek gure kezkari heldu eta bakoitzak bere argudioekin bada ere iniziatiba bat aurkeztu dute Legebiltzarrean proiektu hori bertan behera uzteko eskatzeko.

EAJ, PSE, PP blokeak hori aurrera ateratzea ekidin egin du. Eta CCOO ohar batean atsekabetua azaldu da EH Bildu eta Podemos jarrerarekin.

## Mobilizazio sozialez jositako udazkena

**Pentsionistak:** Udazkeneko astelehen guztietan atera dira pentsionistak kalera Hego Euskal Herriko hainbat hiritan. Abenduaren 15eko mobilizazio eguna ere garrantzitsua izan da. Lortu dituztenak azpimarratzekoak dira: aurrekontuetako eztabaidaren erdian sartu dira, interlokutore sozial bezala onartu behar izan dituzte (lanaren esparruan sindikatuoi bakarrik onartzen zaiguna), bilerak egin dituzte instituzio nagusiekin, eta mugimendu bezala sendotzen ari dira, izan ere mobilizazio dinamikari esker sortutako giroan pentsionista taldeak sortzen ari dira herri eta hiri askotan.

Aipagarria da emakume pentsionistak antolatzeko eta mobilizatzeko martxan jarri den **Oneka** plataforma sortu izana. Emakume pentsionistak borrokaldira batzeko tresna izateaz gain, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakume helduak presentzia eta ahotsa edukitzeko tresna ere izango da.

**Gazteak:** Gazteen artean ere gauzak mugitu dira. Ernai eta Ikasle Abertzaleak erakundeen arteko aliantza bertan behera geratu da eta Ernaik hezkuntza eremuan ere antolatzeko erabakia hartu du, bere ildo propioa garatu ahal izateko. Prekarietatearen kontrako borrokan orain arte egin bezala, hezkuntza sistema propioaren eraikuntzan ere LABek Ernairekin elkarlanean aritzeko prestutasuna adierazi du.

Bestalde, Jarrai sortu zela 40 urte bete direla baliatzen ari da Ernai ziklo oso bateko gazte antolakuntza eta borroka ziklo politiko berrira ekartzeko, gazte mugimenduaren garai berriari bultzada nabarmena ematen ari delarik. Guztion agendetan gordetzeko hitzordua jarri dute berriro ere: apirilaren 19tik 22ra Lemoan egingo dute **Gazte Topagunea** berriro ere.

reclamado iniciativas políticas. EH Bildu y Podemos han recogido nuestra preocupación y, aunque cada uno con sus propias argumentaciones, han presentado una iniciativa parlamentaria para paralizar ese proyecto.

El bloque PNV-PSE-PP ha evitado que esta iniciativa saliese adelante. Y CCOO en una nota se ha mostrado molesto con la posición de EH Bildu y Podemos.

## Un otoño repleto de movilizaciones sociales

**Pensionistas:** todos los lunes de este otoño las y los pensionistas han salido a la calle en distintos pueblos y ciudades de Hego Euskal Herria. La movilización del día 15 de diciembre también ha sido importante. Lo que han conseguido es reseñable: han entrado al centro del debate presupuestario, se les ha aceptado como interlocutores sociales (cosa que en el ámbito laboral solamente se nos reconoce a los sindicatos), han realizado reuniones con las principales instituciones y se están fortaleciendo como movimiento, ya que, gracias al ambiente creado por la dinámica de movilizaciones, están surgiendo grupos de pensionistas en muchos pueblos y ciudades.

Hay que subrayar el nacimiento de la plataforma **Oneka**, que busca organizar y movilizar a las mujeres pensionistas. Además de ser un instrumento para que las pensionistas se unan a la lucha, el movimiento feminista de Euskal Herria contará también con un medio por el cual las mujeres mayores tendrán presencia y voz.

**Jóvenes**: también en el movimiento juvenil se han movido las cosas. La alianza entre Ernai e Ikasle Abertzaleak se ha dado por finalizada y Ernai ha tomado la decisión de organizarse también en el ámbito estudiantil para desarrollar su propia línea. Tal y como hemos hecho hasta el momento en la lucha contra la precariedad, LAB ha mostrado su disposición para trabajar junto con Ernai en la construcción de un sistema educativo propio.

Por otra parte, aprovechando que se cumplen 40 años desde que surgió Jarrai, Ernai está dando un empuje considerable al movimiento juvenil para impulsar la organización y lucha de todo un ciclo al nuevo ciclo político. Nuevamente tenemos una fecha en la agenda que todo el mundo debemos guardar: del 19 al 22 de abril, **Gazte Topaketak en Lemoa.**

**Mugimendu Feminista:** hitzordu nagusia Mundu Martxako Nazioarteko jardunaldiak izan dira. Bilbon egin zen 2020 mundu martxa prestatzeko Mundu Martxako Zuzendaritza Batzordearen goi bilera eta nazioarteko gonbidatuen presentzia baliatu genuen Feministen Herria ekimena antolatzeko. Euskal Herri feminista bat irudikatu nahi izan genuen; gure lurraldeen, gorputzen eta erabakien jabe egingo gaituen trantsizio feminista aldarrikatzeko aukera izan genuen ehunka emakumeek.

Udazkenak **martxoaren 8rako greba feminista** berriaren deialdia utzi digu ere. Pasa den urtean eman urratsari jarraiki Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeei dei egin diegu gure herrietako plazak Euskal Herriaren egoera iraultzeko balio duten aldarrikapen feministaz betetzeko. Jardunaldi Feministak antolatzeko bideari ere ekin zaio baita ere. Mugimendu Feministak erabaki estrategikoak hartzeko parada izango da, Euskal Herrian bizi dugun ziklo politiko berrian kokatuz gure burua eta emakumeon egoera sakonean aztertuz.

Azazoaren 25aren testuinguruan mugimendu feministatik justizia patriarkalaren salaketan jarri zen indarra. Manadaren kontrako sententzian berretsi da Nafarroako Auzitegi Gorena, berriro ere agerian geratuz ze nolako sistema judiziala dagoen. Biktimaren hitza zalantzan jarri eta bikitima berriro biktimizatzen duena ez da justizia.

Sindikatuan emakumeen kontrako indarkeriarako epaitegien egoera aztertzen duen informea egin eta aurkeztu dugu, testuinguru honetan. Epaitegi hauen egoerak agerian uzten du sistema judizial honek ez duela berme nahikorik eskaintzen emakumeek pairatzen duten indarkeria matxistari aurre egiteko. Horregatik, emakumeentzat justizia aldarrikatuz mobilizatu ginen.

**Euskaraldia** bukatu berri den honetan sindikatutik ekimena martxan jartzeko eta Euskal Herriko bazter guztietara eramateko lanean aritu diren milaka eta milaka bolondresen lana txalotu nahi dugu. Euskaraldiak erakutsi du euskaraz bizitzeko aukera emanez gero hautu hori egingo dugula askok eta askok. Eta, era berean, bistakoa egin du aukera hori benetakoa izango dela politika instituzional egokiak egiten badira hizkuntza eskubideak ziurtatzeko. Herriak bete du beste behin ere bere egitekoa, euskal

**Movimiento feminista:** la cita más reseñable han sido las jornadas internacionales de la Marcha Mundial. En Bilbo se realizó la reunión del Comité de Dirección de la Marcha Mundial y aprovechamos la presencia de invitadas internacionales para organizar la jornada de Feministon Herria. Quisimos representar una Euskal Herria feminista y cientos de mujeres pudimos reivindicar una transición feminista que nos posibilite ser sujetos soberanos de nuestra tierra, nuestros cuerpos y nuestras decisiones.

El otoño también nos ha dejado el llamamiento a una nueva **huelga feminista para el 8 de marzo**. Para continuar con el paso que dimos el año pasado, el movimiento feminista de Euskal Herria hemos hecho un llamamiento a las mujeres para que llenemos las plazas de nuestros pueblos con reivindicaciones feministas que busquen transformar la situación de Euskal Herria. También se ha comenzado a organizar las Jornadas Feministas. Será una oportunidad para que el movimiento feminista tome decisiones estratégicas, situándonos en el nuevo ciclo político que estamos viviendo y analizando en profundidad la situación de las mujeres.

En el contexto del 25 de noviembre el movimiento feminista puso el acento en la justicia patriarcal. El Tribunal Superior de Navarra se ha reafirmado en la sentencia de la manada, quedando en evidencia nuevamente qué clase de sistema judicial existe. Una justicia que pone en tela de juicio la palabra de la víctima y la revictimiza no es justicia.

En este contexto, en el sindicato hemos realizado y presentado un informe que analiza la situación de los juzgados de violencia contra las mujeres. La realidad de estos juzgados deja en evidencia que este sistema judicial no ofrece suficientes garantías para hacer frente a la violencia machista que sufrimos. Por ello, nos movilizamos para exigir justicia para las mujeres.

Cuando acaba de finalizar el **euskaraldia**, queremos aplaudir el trabajo que han realizado miles de personas voluntarias, tanto para poner en marcha esta iniciativa en el sindicato, como para llevarla a todos los rincones de Euskal Herria. Se ha demostrado que, si se nos da la oportunidad de vivir en euskara, muchas y muchos vamos a optar por ello. Y también ha dejado patente que esa posibilidad será real si se realizan políticas institucionales adecuadas para garantizar nuestros derechos lingüísticos. El pueblo

instituzioei dagokie orain lekukoa hartzea politika linguistikoetan urrats berriak ematea.

nuevamente ha cumplido y ahora les corresponde a las instituciones coger el testigo y dar nuevos pasos en su política lingüística.

LABek, bere aldetik, lan munduaren euskalduntzean ekarpena egiten jarraituko du. Ildo honetan, nabarmentzekoa da Kolektibitate enpresa nagusienetakoa den Gaskako langileak (1.400 inguru) euskalduntzeko Enpresarekin eta AEKrekin lortutako akordioa, aurten Ausolaguneko lau herrialdeetako langile guztiengana (4.000 baino gehiago) zabalduko dena.

LAB, por su parte, continuará aportando en la euskaldunización del mundo laboral. En este sentido, hay que subrayar el acuerdo que se ha logrado con la empresa Gasca y AEK para la euskaldunización de sus trabajadoras y trabajadores, una de las empresas principales de colectividades (1.400 personas en plantilla), y que este año se extenderá a todas las trabajadoras y trabajadores de Auzolagun en las cuatro provincias (más de 4.000 personas).

**Cabacas auzia:** hasieratik garbi geratu da kasua argitu eta dagozkion erantzunkizuna hartzeko borondate poltiko falta. Epaiketa denboran gehiegi luzatu da, instrukzio fasean hainbat oztopo gainditu behar izan dituzte Iñigoren familiak eta bere abokatuek eta epaiketa hutsune argi batekin hasi zen, Iñigoren heriotza ekarri zuen operatiboaren arduraduna ez zegoen akusatuen aulkian.

**Juicio Cabacas:** desde el comienzo ha quedado clara la falta de voluntad política para esclarecer el caso y asumir las responsabilidades corespondientes. El juicio se ha alargado demasiado en el tiempo, la familia de Iñigo y sus abogadas y abogados han tenido que sortear múltiples obstáculos en la fase de instrucción y, además, el juicio comenzó con una carencia clara: el responsable del operativo que provocó la muerte de Iñigo no estaba en el banquillo de los acusados.

Gertatutakoa neurri handi batean argi geratu arren, epaiarekin ez da justiziarik egin, erantzunkizunak bai baina erantzule nagusia izan ez zenari, zigor txiki bat jarriz. Familiak errekurtsoa iragarri du eta oraindik itxi ez den kapitulo bat dugu hau, nahiz eta Aldekoaaren dimisioarekin hala irudikatu nahi izan duten. Indarrean dagoen polizia ereduan auzitan jartzen du geraturikoak.

Aunque, en gran medida, lo ocurrido haya quedado claro, con la sentencia no se ha hecho justicia, se han dirimido responsabilidades, pero no a quien fue el principal responsable, y el castigo ha sido mínimo. La familia ha anunciado que recurrirá. Nos encontramos ante un capítulo que no se ha cerrado, aunque con la dimisión de Aldekoa así pretenden que se visualice. Además, todo lo ocurrido pone en tela de juicio el modelo policial vigente.

Hainbat mobilizazio burutu dira justizia eskatu eta sindikatuak hauek babestu eta parte hartu izan du.

Se han realizado múltiples movilizaciones para pedir justicia, las cuales el sindicato ha apoyado y en las que ha tomado parte.

## Lan gatazken gorakada

Pasa den kurtsoko bukaeran ekintza sindikaleko txostena osatu genuen. Bertan, borrokaren aldeko apustu nabarmena ikusten zen, gatazken gorakada nabarmen batekin baita grebaren presentziarekin.

Kurtso berri honetan, eta HHSSak zeudela kontutan hartuta, bide horrexeri eustea zaila izango zela aurreikusten genuen, baina, eutsi ezinik ugaritu ere egin dugula esan beharra dago.
Lan gatazkak piztu eta egin ditugu han eta hemen. Prekarietatearen kontrako borroka indartzen ari

## Aumento de los conflictos laborales

Al finalizar el pasado curso realizamos un informe sobre acción sindical en el cual se veía claramente nuestra apuesta por la lucha, con un aumento significativo de conflictos y de huelgas.

Para este nuevo curso, y teniendo en cuenta que hay elecciones sindicales, preveíamos que mantenernos en este mismo camino iba a ser complicado; no obstante, no solamente nos estamos manteniendo, sino que la conflictividad ha aumentado.
Hemos abierto y desarrollado conflictos en distintos ámbitos. Estamos reforzando la lucha contra la

gara eta sektore guztietara zabaltzen ari gara konfrontazioan eta lantokiz lantokiko ahaleginetan oinarritzen den ekintza sindikalarekin. Aipamen berezia behar dute feminizatutako sektoreak, borrokarako autua eta griña nabarmenak baitira eremu hauetan. EAEko datuak ditugu eta joera hauek argi erakusten dute. 2015ean 7.000 langilek izan ziren grebara deituak, 2018ko lehen 6 hilabeteetan 37.000k

precariedad y la estamos extendiendo a todos los sectores mediante una acción sindical basada en la confrontación y el esfuerzo en cada centro de trabajo. Merecen mencionarse los sectores feminizados, ya que en estos ámbitos la opción y las ganas de pelear son destacables. Contamos con los datos de la CAV y no dejan duda de esta tendencia: si en el 2015 se convocó a la huelga a 7.000 trabajadoras y trabajadores, en los primeros 6 meses del 2018 lo han sido 37.000.

Borrokak martxan ipini ditugu ere negoziazio kolektiboari bultzada berri bat emateko ere, prozesu berriak irekitzen eta hainbat lekuetan akordioetara iristen. Urte hasieran langileen %25ak zeukan hitzarmena indarrean; urria bukaeran %42ak. Datu hauek argi erakusten dute hitzarmena izateko borrokatzeko baino tresna hoberik ez dagoela.

También hemos puesto en marcha distintas luchas para dar un nuevo impulso a la negociación colectiva, hemos abierto nuevos procesos y en distintos sitios hemos llegado a acuerdos. A principios de año solo un 25% de trabajadoras y trabajadores tenían su convenio en vigor; a finales de octubre este número llegaba a un 42%. Estos datos dejan claro que el mejor instrumento para conseguir un convenio es la lucha.

Azken hilabeteetan burutu eta burutzen ari garen gatazketariko batzuk, hauek dira: Gipuzkoako zahar egoitzak, Bizkaiko eta Donostiako etxez etxeko zerbitzua, Dia, Simply, Igande eta Jai egunak, Huerta de Peralta, Gipuzkoako epaitegiko garbiketa, Bizkaiko Kotserbak, Bizkaiko metala, Loramendi zahar egoitza, Itunpeko irakaskuntza, Bizkaiko Bulegoak, Talleres Berasategi, Niessen, EAEko gizarte ekimena.

Algunos de los conflictos que hemos llevado a cabo y en los que estamos ahora son las residencias de Gipuzkoa, servicio domiciliario de Bizkaia y Gipuzkoa, Dia, Simply, domingos y festivos, Huerta de Peralta, limpieza de los juzgados de Gipuzkoa, conserveras de Bizkaia, metal de Bizkaia, residencia Loramendi, enseñanza concertada, oficinas de Bizkaia, Talleres Berasategi, Niessen, iniciativa social de la CAV.



Hainbat gatazketan ELA izaten ari den jarrera aipatzekoa da, jarrera desegokia ikusten ari gara. Hainbat gatazketan (Gipuzkoako zahar egoitzak, Bizkaiko Bulegoak, Bizkaiko Foru Aldundiko garbitzaileak, kontserberak, ...) bakarrik joateko ahaleginak egin dituzte, batzuetan aitzakietan oinarrituta batasuna apurtu, eta beste batzuetan elkarkana ekiditzen.

Tenemos que mencionar la posición de ELA en diversos conflictos, ya que nos parece muy inadecuada. En muchos de ellos (residencias de Gipuzkoa, oficinas de Bizkaia, limpieza de Diputación de Bizkaia, conserveras...) han intentado ir en solitario, para lo que en algunas ocasiones han roto la unidad de acción basándose en excusas y, en otras, simplemente han evitado el trabajo en común.

Jarrera honek, ELAk Hauteskunde Sindikalei begira, borrokak patrimonializatzeko duen joera erakusten du, interes partidistak lehenetsita. Jarrera honek ez die mesederik egiten langileei, askoz indar handiagoa baitugu elkarrekin aritzen garenean. LAB eta ELArekin batera borrokatzeko hautua berresten du, joku arauak eta helburuak argi utzita, baina ez gara beraiei itxaroten egongo gure borrokarako bidea hasteko.

Esta posición no hace más que demostrar los intentos de ELA de patrimonializar las luchas con vistas a las elecciones sindicales y dar prioridad a sus intereses partidistas. Esto no les hace ningún favor a las trabajadoras y trabajadores, ya que contamos con mucha más fuerza cuando actuamos conjuntamente. LAB se reafirma en su decisión de luchar junto a ELA, siempre y cuando estén claras las reglas de juego y los objetivos, pero no vamos a estar esperando a su sindicato para recorrer nuestro camino.

## Mobilizazio soziala eta aldaketa politikoa

Mobilizazioa eta herri aktibazioak suspertzen jarraitzen dute, aldarrikapenak denetarikoak dira eta moldeetan ere gauza berriak ikusten ditugu. Interesgarria da oso udazkenak eman dituenak zerrendatuz gero ateratzen den argazki bizia. Mobilizazio dinamika guzti honek zer eztabaidatu ekarri digu guztiei: mobilizazio sozialaren eta ezkerreko indar politikoen arteko distantzia murriztearen beharra, sindikalismotik jokatzen ari garen papera, burujabetza prozesuarekin lotzeko premia... agendan bere lekua izan behar duten eztabaidak dira suspertzen ari den mobilizazio soziala aldaketa politikoak behartuko dituen prozesuaren palanketako bat izatea nahi badugu.

## Movilización social y cambio político

La movilización y activación social siguen avivádose, las reivindicaciones son diversas y también en los métodos estamos viendo cosas novedosas. Es súmamente interesante la foto tan vívida que tenemos si hacemos una lista de todo lo que ha sucedido en otoño. Toda esta dinámica de movilizaciones nos debe llevar a distintos debates: la necesidad de acortar las distancia existente entre la movilización social y las fuerzas políticas de izquierda, el papel que estamos jugando desde el sindicalismo, la necesidad de unirlo con el proceso soberanista... son debates que deben tener un sitio en la agenda, si queremos que la creciente movilización social sea una de las palancas para provocar cambios políticos.

# TESTUINGURU POLITIKOA

## Espaniako estatua: konstituzioaren 40.en urtemuga

Trantsizioak ez du demokraziarik ekarri espainiar estatura. Ez da egon benetako hausturarik erregimen frankistarekin eta Frankismoan ezarritako zutabeen gainean eraiki da Konstituzioa, espainiar estatuaren batasuna guztiaren gainetik jarriz. Era berean, sistema kapitalista heteropatriarkalaren garapenerako bermerik onena izan da.

Konstituzioak 78an ezarri zen erregimenaren euskarri nagusia oraindik bada ere, eman beharreko guztiak eman ditu: erabakitzeko eskubidea defendatzen dugunontzat ez dago lekurik, autonomia ereduaren mugak agerikoak dira, eraldaketa sozialerako ez du aukerarik ematen eta indartzen ari dira 78an urrunegi joan zela pentsatzen zuten sektoreak. Beraz inor gutxi asetzen du, beste kontua da ez dagoela erreforma adosturik egiteko tarterik.

Lurralde ereduaren auzia bideratzeko tresna bezala guztiz agortua dago. Konstituzioaren mugetan ezinezkoa da benetako eskaintza politikorik egitea Kataluniarentzat edota Euskal Herriarentzat. Ez da posible bide honetatik gure etorkizunaren jabe egingo gaituen erabakitzeko ahalmenik eskuratzea.
Estatutismoa garatzeko ez du balio. Azken urteak inboluzio urteak izan dira eta EAEko Autonomia Estatutua zein Nafarroakoa Foru Hobekuntza ez dira bete eta erasotuak izan dira. Oraindik hainbat

# CONTEXTO POLÍTICO

## Estado español: 40 años de Constitución

La transición no trajo consigo democracia al Estado español. No hubo ruptura real con el régimen franquista, por lo que la Constitución fue construida sobre los mismos pilares en que se sostenía el franquismo, poniendo por encima de todo la unidad de España. Asimismo, ha sido una de las mejores garantías para el desarrollo del sistema capitalista heteropatriarcal.

Aunque la Constitución continúe siendo el mayor apoyo del régimen del ’78, ya ha dado de sí todo lo que tenía que dar: no hay sitio para quienes defendemos el derecho a decidir, los límites del modelo autonómico son patentes, no ofrece ninguna posibilidad para el cambio social y están aumentando los sectores que piensan que en el ’78 se fue demasiado lejos. Por tanto, satisface a muy poca gente. Tema aparte es que no hay posibilidad de realizar una reforma consesuada.

Como instrumento para encauzar el modelo territorial está completamente agotada. Dentro de los límites de la Constitución es imposible hacer una oferta política real para Catalunya o para Euskal Herria. Por ese camino no hay opción para conseguir el derecho a decidir que nos haga dueñas y dueños de nuestro futuro.
No sirve para desarrollar el estatutismo. Estos últimos años han sido años de involución y, tanto el Estatuto de Autonomía de la CAV, como el Amejoramiento navarro, además de no haberse cumplido, han sido

transferentzia esku aldatu gabe daude. Eta eskuz aldatuko balira ere, argi dago Estatuak duela beti azken hitza, Nafarroako Legebiltzarrak superabita bideratzeko inbertsio plana bertan behera uzteko erabakiarekin erakutsi duen bezala. Sistema autonomikoan ez dago alde bikotasunerako tarterik.

atacados. Todavía faltan múltiples competencias por transferir. Y, aunque se trasnfiriesen, está claro que es el Estado el que tiene siempre la última palabra, tal y como ha demostrado con la decisión de echar por tierra el plan de inversión del superávit del Parlamento de Nafarroa. Dentro del sistema autonómico no hay espacio para la bilateralidad.

Udazkenean transferentzia berriak izan dira hizpide hala Nafarroan nola EAEn. Nafarroan trafiko arloko eskumenak hitzartu dira. EAEri dagokionez, berriz, trenbide eta errepide zati baten gainean erabakiak hartzeko ahalmena da Jaurlaritzak eskuratu duen guztia; bien bitartean, berriro esan digute autogobernu maila egoki bati buruz hitz egiteko funtsezkoa den gizarte segurantza ez dugula sekulan eskuratuko. Hori izango litzateke 78ko ereduan urrats berri eta benetako bat ematea, eta argi geratu da ez dela emango.

Uno de los temas este otoño han sido las nuevas transferencias, tanto en Nafarroa, como en la CAV. En Nafarroa se han acordado las competencias de tráfico. En la CAV, por el contrario, todo lo que ha conseguido el Gobierno Vasco ha sido la capacidad de tomar decisiones sobre un tramo de carreteras y de línea ferroviaria; mientras tanto, nos han dicho nuevamente que nunca vamos a conseguir la competencia de Seguridad Social, tema clave para que pudiésemos hablar de un nivel adecuado de autogobierno. Ése sí sería un paso nuevo y real en el modelo del ’78, y ha quedado claro que no va a darse.

Konstituzioa baliatu dute gure nazio eskubideak ukatzeko eta Konstituzioan oinarritzen da gure klase eskubideen eta interesen gainetik kapitala beti gailentzea ziurtatzen duen joko zelaia.

Han utilizado la Constitución para negarnos nuestros derechos nacionales y también se fundamenta en la Constitución el campo de juego que asegura que siempre se sobrepondrá el capital a nuestros derechos e intereses de clase.



Hamarkadetan, onartu zenetik eta 80ko hamarkadatik hona inposatu den oldarraldi neoliberalaren baitan, Konstituzio espainiolak kapitalaren nagusitasuna langile klasearen zapalketarako bermatu du, herri sektore anitzen bazterketa eta miseria bideratu du; euskal langileon eskubide laboral eta sozialak etengabe kolpatzea ahalbidetu du, krisi eta erasoaldi ezberdinak tarteko, eta hala, 40 urteren ondoren, bizitzaren prekarizaziaoren aroari ateak ireki dizkio.

Durante décadas, desde que se aprobó y durante la ofensiva neoliberal que se ha impuesto desde la década de los ’80, la Constitución española ha asegurado la preeminencia del capital y la supeditación de la clase trabajadora; ha dirigido hacia la exclusión y la miseria a amplios sectores populares; ha promovido que se agredan sin descanso los derechos laborales y sociales de las trabajadoras y trabajadores, entre diferentes crisis y ataques, y así, 40 años después, ha abierto las puertas al tiempo de la precarización de la vida.

Horrela, konstituzioa arazo bat da ezkerretik errealitatea aldatu nahi duen edonorentzat. Konstituzioa errespetatzea, zaintzea eta babestea oinarrizko eta derrigorrezko araua bihurtzen duen ezkerra langileriari eta herri sektoreei benetako eskaintza politikoak egiteko aukerarik gabe geratzen dela ikusten ari gara. Konstituzio espainiarrari 78ko jokaldiaren gurasoek eskatzen duten leialtasunean ito dituzte azken krisiaren protestetan sortu ziren aldaketarako baldintzak.

De esta manera, la Constitución es un problema para cualquiera que quiera cambiar la realidad desde la izquierda. La izquierda que convierte en norma obligada y fundamental respetar la Constitución, cuidarla y protegerla se queda sin oportunidad de hacer verdaderas ofertas políticas a la clase trabajadora y a los sectores populares, tal y como estamos viendo. Han ahogado las condiciones para el cambio que habían surgido de las protestas de la última crisis en la lealtad hacia la Constitución que reclaman los padres de la jugada del ’78.

40 urte geroago eta lurralde krisiaz baliatuz, inolako konplexurik gabe konstituzioaren aurretiko egoerak aldarrikatzen dituzten eta programa elektoral bihurtzen dituzten partiduak indartzen ari dira.

## Andaluziako hauteskundeak

Eskuinak oso emaitza onak izan ditu. PPk nahiko ondo eutsi dio, bazirudien Cs eta VOX efektuak izan duena baina desgaste handiagoa suposatuko ziela. Csek emaitzen onak izan ditu eta VOXen igoera da beharbada gauzarik aipagarriena, zeuden aurrikuspenak gaindituz.

Azaroaren 20an Franco goraipatzeko ekitaldiak han eta hemen baimendu zituzten berberak asaldatu dira abenduaren 2an VOX bezalako alderdi ez-konstituzionalak 12 ordezkari lortu dituelako, eskuin muturrak Andaluziako egoera instituzionala irauli duelako eta Estatuko egoera politikoa astindu.

Askok Kataluniako prozesuan kokatzen dute arrazoia. Badago faxismoaren gorakada mugimendu feministari leporatzen dionik. VOXek izen abizenak jarri dizkie arriskuei: Estatua suntsitu nahi duten separatistak eta lanpostuak kentzera datozen etorkinak. Eta zutena defendatzeko eskaintza argia egin die espainiarrei: España bat, bakarra, batua eta espainiarra. Espainiarren Espainia berreskuratzea.

VOX alderdiaren 100 neurriak lau ardatzetan laburbildu daitezke: 78an emandakoa berreskuratzea Estatua berriro ere zentralizatuz. Sektore publikoa minimoetara eramatea merkatuari muga eta oztopo oro kenduz. Familia izatea eskubidedun subjektu nagusia (VOX ez da feminismoaren kontra egiten duen alderdi bat bakarrik, emakumeon askatasunaren kontra dago etxetik ateratzeko eta eskubideetara gerturatzeko egin diren lege guztiak bertan behera geratzea eskatzen duenean). Eta inmigrazioa neurri errepresiboekin konpontzea, ilegalak kanporatuz eta legalak merkatuaren premien arabera arautuz. Honela, segurtasun indarren, dirudunen eta migranteen esplotaziotik bizi direnen babesa (azken honen ildoan, esanguratsua da El Ejidoko babes maila) lortu du nagusiki.

Tras 40 años, y utilizando la crisis territorial, están tomando fuerza los partidos que reclaman y convierten en su programa electoral una situación previa a la Constitución ya sin ningún complejo.

## Las elecciones de Andalucía

La derecha ha logrado unos resultados muy buenos. El PP ha aguantado bastante bien, aunque parecía que el efecto de Cs y VOX le iba a suponer un desgaste aún mayor. Cs ha tenido buenos resultados y posiblemente lo más remarcable sea la subida de VOX, que ha superado todas las expectativas.

Las y los mismos que permitieron el 20 de noviembre que se realizasen por todas partes actos de exaltación de Franco se echan las manos a la cabeza cuando el 2 de diciembre un partido no constitucional como VOX consigue 12 escaños y porque la extrema derecha haya dado la vuelta a la situación de Andalucía y sacudido la situación política del Estado.

Hay quien sitúa la razón en el proceso catalán. También hay quien responsabiliza al movimiento feminista del ascenso del fascismo. VOX ha puesto nombres y apellidos a los supuestos peligros: separatistas que quieren acabar con el Estado y migrantes que vienen a quitar puestos de trabajo. Y ha hecho a las y los españoles una oferta clara para defender lo que tenían: un España única, unida y española. Recuperar la España de los españoles.

Las 100 medidas de VOX pueden resumirse en cuatro fundamentos: recuperar lo que se entregó en el '78, centralizando nuevamente el Estado; llevar al sector público a mínimos, quitando límites y obstáculos al mercado; que la familia sea el principal sujeto de derechos (VOX no es únicamente un partido que hace frente al feminismo, está en contra de la libertad de las mujeres de salir del hogar cuando reclama que todas las leyes que se han realizado para acercarnos a conseguir nuestros derechos sean derogadas); arreglar la inmigración con métodos represivos, expulsando a las personas en situación irregular y regularizando al resto según las necesidades del mercado. De esta manera, ha logrado el apoyo, mayoritariamente, por parte de las fuerza de seguridad, de las clases altas y de quienes viven de la explotación de las personas migrantes (es de remarcar, en este sentido, el nivel de apoyo de El Ejido).

Larria da horrelako alderdiak hainbesteko babes soziala jasotzea, areago kontuan izanda bere agerpenak beste bi eskuinen erradikalizazioa ekarri duela; honela, eskuin muturreko alderdi bat baino, Espainiako Estatuan hiru daudela ematen du, Aznarren bedeinkazioarekin. Badirudi hiru horiek osatuko dutela Andaluziako Gobernua eta Estatu mailan gehiengoa osatzeko ikuspegian jarriak daude jada.

Edozein kasutan ere, erratuko ginateke eskuin muturraren arazoa "Espainiara" mugatuko bagenu. Kontuan hartu behar dugu Fronte Nazionalak Ipar Euskal Herrian babes maila bat duela, kontuan hartu behar dugu Hego Euskal Herriko hainbat eskualdetan Espainiako joeren eragina izaten dela, baita Nafarroan erregimenak darabiltzan mezuetako askok (Skolaeren kontrako kanpaina, esaterako) eskuin muturraren uztakoak direla ere. Honela, Euskal Herrian ere eskuin muturraren egitasmoari eta mezuei aurre egin behar diegu, eskubide demokratikoen, berdintasunaren eta justizia sozialaren aldeko paradigma indartzen.

Andaluziako hauteskundeekin jarraituta, PSOEren emaitza txarrak nabarmenak izan dira, baina baita Podemosenak ere. Podemosek noraeza maila handia erakusten du, barne liskarrak dituzte eta proiektu argirik ez dute. Langileriari eta herri sektoreei begirako egitasmo eraldatzaile sendo baten gabezia nabarmena da.

PSOEren istorian inflexio puntu bat markatu dezakete. Kontuan hartzekoa da trantsizioaren hasieratik Andaluzian gobernuan egon den alderdia dela. Boto emaileak korrupzioarekin eta proiektu faltarekin nazkatuak daudela ikusi da eta hainbat bozka emaile abstentzioan geratu dira, baina egongo da Cs edo Voxera joan denik ere.

Es grave que un partido de estas características consiga un apoyo tan amplio y más aún teniendo en cuenta que su surgimiento ha promovido la radicalización de los otrso dos partidos de derehas; parece que en el Estado, más que un partido de extrema derecha, huebiese tres, con la bendición de Aznar. Parece que estos tres van a ser los que conformen el Gobierno de Andalucía y ya han puesto sus miras en formar mayoría a nivel estatal.

De cualquier forma, nos equivocaríamos si limitasemos el problema de la extrema derecha a "España". Tenemos que tener en cuenta que el Frente Nacional en Ipar Euskal Herria ha conseguido también sus apoyos, que en diversas comarcas de hego Euskal Herria se reproducen la tendencias del Estado y también que en Nafarroa muchos de los mensajes que utiliza el régimen (campaña en contra de Skolae, por ejemplo) son calcados a los de la extrema derecha. Así, también en Euskla Herria debemos hacer frente al proyecto y los mensajes de la ultraderecha, fortaleciendo el paradigma de los derechos democráticos, la igualdad y la justicia social.

Siguiendo con las elecciones de Andalucía, los malos resultados del PSOE han sido evidentes, pero también los de Podemos. Podemos demuestra un alto nivel de desorientación, con conflictos internos y sin un proyecto claro. Es patente la falta de un proyecto transformador firme para la clase trabajadora y los sectores populares.

En la historia del PSOE puede marcar un punto de inflexión. Hay que tener en cuenta que desde el comienzo de la transición éste es el partido que ha estado en el Gobierno en Andalucía. Se ha visto que las y los votantes están cansados de corrupción y de falta de proyecto y unna gran parte ha ido a la abstención, aunque haya quien también haya pasado a Cs y VOX.



## Estatu krisia edonora begiratzen dugula ere

Udazkena oparoa izan da Estatu Espainiarrak bizi duen (eta luze doan) krisia eremu guzti guztietan atzemateko.

Botere politiko eta judizialaren arteko menpekotasunak agerian geratu dira berriro ere Botere Judizialaren organo nagusia berritzeko PP eta PSOEk egin duten saiakeran ("bigarren sala atzeko atetik kontrolatuko

## Crisis del Estado allá donde miremos

Durante este otoño ha sido patente en todos los ámbitos la crisis que está viviendo el Estado español (y que ya va para largo).

Las subordinaciones entre el poder político y el judicial han quedado nuevamente al descubierto en el intento que han hecho PSOE y PP para renovar el órgano principal del Poder Judicial ("Controlamos

dugu", adierazi zuen PPko buruzagi batek). Era berean, hipoteken gaineko zergaren aferan agerian geratu dira botere ekonomiko eta judizialaren arteko loturak.

Monarkiari dagokionez, aita kendu eta semea jarriz gainditu nahi izan dute 78ko erregimenaren zutoinetako bat den monarkiaren krisia. Baina ustelkeriak jota dago instituzio osoa. Bestalde, oso oharkabean pasatzen ari dira monarkiari buruz Madrilen egiten ari diren herri galdeketak baina belaunaldi berrietan Felipe izendatzearen jokaldiak ezer gutxi konpondu duela erakusten du.

Ustelkeria: PPen ustelkeria azken txokoraino iritsi dela ikusten jarraitzen dugu baina udazkenean PSOEk eman ditu lerro buru nagusiak. Gobernua egonkortzeko eta sendotzeko arazo bat dela ikusi dugu filtrazioen bidez gobernu krisi txikiak sortzen dituztelako uneoro, azkena Borrelen kasuan. Bestalde, De Miguel kasuak (Fiskalak mafiatzat deskribatu zuena) argi erakutsi du ustelkeria ez dela Ebrotik beherako arazoa: Nafarroan UPNkoek bezala, EAEn EAJko buruzagi esanguratsuek instituzioak euren mesedetan erabili egin dituzte. Obra publikoengatik komisioak kobratzea ohikoa izan da 78ko Erregimenaren parte izan direnentzat.

Krisi politikoak darrai. PSOEren ahuldadea begi bistakoa da. Aurrekontuak aurrera ateratzeko ezintasuna, Andaluziako emaitzak... Hauteskundeak aurreratzeko aukerak airean jarraitzen du, ez dirudi momentu honetan hori oso aukera ona denik PSOErentzat.

## Kataluniako prozesua: epaiketa

Datozen hilabeteak independentismoaren kontrako epaiketak markatuko ditu. Izugarrikeri juridiko eta politikoa da herriari hitza emateagatik arduradun politikoak espetxean edota erbestean egotea. Izugarrikeria ematen ari den justiziaren politizazioa dauden zigor eskaerak guztiz neurrigabekoak direlarik.

Preso politiko katalanek gose greba abiatu dute epaiketaren testuingurua tenkatu eta baldintzatzeko. Era berean, CDRen eta bestelako eragileen

la Sala segunda desde detrás" escribió un dirigente del PP). Asimismo, en el asunto del impuesto de las hipotecas han quedado en evidencia los vínculos que existen entre el poder económico y el judicial.

En lo referente a la monarquía, han pretendido superar la crisis que afecta a uno de los pilares del régimen del '78 quitando al padre y poniendo al hijo. Pero la institución completa está sumida en la corrupción. Por otra parte, están pasando muy inadvertidas las votaciones populares que se están realizando en Madrid sobre la monarquía, lo que demuestra que para las nuevas generaciones la jugada de nombrar a Felipe ha solucionado bien poco.

Corrupción: continuamos viendo que la corrupción del PP ha llegado hasta el último rincón, aunque en otoño ha sido el PSOE quien ha dado los principales titulares. Hemos visto que existen problemas para afianzar y reforzar el Gobierno, ya que por medio de filtraciones se están creado pequeñas crisis a cada momento; la última, el tema de Borrell. Por otra parte, el caso De Miguel (descrito como mafia por parte de la fiscalía) ha dejado claro que la corrupción no se trata de un problema del Ebro para abajo: al igual que UPN en Nafarroa, cargos importantes del PNV han utilizado las instituciones en su propio provecho. Ha sido costumbre cobrar comisiones por obras públicas para todos los que han formado parte del régimen del '78.

La crisis política continúa. La debilidad del PSOE es palpable. La incapacidad de sacar adelante los presupuestos, los resultados en Andalucía... la posibilidad de adelantar las elecciones sigue en el aire y no parece que en este momento sea una buena opción para el PSOE. .

## Proceso catalán: juicio

Los próximos meses estarán marcados por el juicio contra el independentismo. Es una aberración jurídica y política que por dar voz al pueblo las y los responsables políticos se encuentren en la cárcel o en el exilio. Una aberración la politización de la justicia y las escandalosas peticiones de penas.

Algunos presos políticos catalanes han comenzado una huelga de hambre para tensionar y condicionar en el contexto del juicio. Asimismo, se están intensificando las movilizaciones de los CDR y de

mobilizazioak areagotzen ari dira, baita Estatuarekiko pultso politikoa ere.

Euskal Herrian ere mobilizazioen aukera iragarri du Gure Esku Dagok. LAB ere prest dago, aurreko ikasturtean egin bezala, demokrazia eta erabakitzeko eskubidearen aldeko borrokari ekarpena egiteko.

## Euskal Herrian burujabetza prozesuan urratsak emateko ekimenak

Testuinguru honek EAJren maniobrarako tartea murriztu egiten du. Sanchezen gobernua nola hala mantentzeko deia eginez atera da Andaluzian gertatukoa baloratzera. Beldurraren diskurtsoaz baliatuz txarra eta okerragoaren artean, txarra aukeratuz eta atzera ez egitea aurrera egitea bailitzan saldu dute.

Hori ez da gure apustua, Euskal Herriak bere bidea egitea da aukera bakarra, Demokrazia, erabakitzeko eskubidea eta burujabetza defendatzen dugunon artean, estatuko beste herriekin elkarlanean lanean eta Estatu krisiari ezkerretik erantzun nahi dioten sektore politikoei eskua luzaturik.

EAEko estatus berria: EAJ eta EH Bilduren (eta atal batean, Podemos-Ahal Duguren) arteko akordio politikoa oinarri hartuta, testu artikulatua prestatzea da adituen batzordearen eginkizuna. Aipatutako akordio politikoa garrantzitsua da: erabakitzeko eskubidearen aitortza eta errespetua jasotzen duelako, estatuarekin berdinetik berdinerako harremanaz hitz egiten duelako eta sindikalgintza abertzaleak hainbatetan aldarrikatu duen Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako esparru propiorako bidea egiteko aukerak ematen dituelako. Argi dago Espainiako estatu egiturak nahiz alderdi nagusienak ez daudela horrelako estatus bat onartzeko prest. Hortaz, aurrera egingo badugu bide horretan, herri aktibazioa eta Estatuarekiko konfrontazioa ezinbestekoak izango dira, Kataluniarekin batera 78ko kaiola behingoz ireki arte.

Testu artikulatuari begira zehaztapenak egitea eskatu du LABek, langileontzat funtsezkoak diren tresnak esplizituki jaso daitezen, besteak beste, Langileon Estatutu propioa, Gizarte Segurantzako lege propioa

otros agentes, así como el pulso político con el Estado.

En Euskal Herria también Gure Esku Dago ha anunciado la posibilidad de movilizaciones. En LAB también mostramos toda nuestra disposición para, al igual que hicimos el curso pasado, hacer nuestra aportación a la lucha por la democracia y por el derecho a decidir. .

## Iniciativas para dar pasos en el proceso soberanista en Euskal Herria

Este contexto reduce el espacio de maniobra del PNV. Ha salido a valorar lo sucedido en Andalucía haciendo un llamamiento a que se mantenga de algún modo el gobierno de Sánchez. Han utilizado el discurso del miedo entre lo malo y lo peor, optando por lo malo y vendiendo que el no retroceder supone un avance.

Ésa no es nuestra apuesta, la única opción es que Euskal Herria haga su camino, entre quienes defendemos la democracia, el derecho a decidir y nuestra soberanía, trabajando junto con los demás pueblos de Estado y tendiendo la mano a los sectores políticos que quieran dar una respuesta desde la izquierda a la crisis de Estado.



**Nuevo estatus de la CAV**: la labor del comité experto es preparar el texto articulado, tomando como base el acuerdo político entre PNV y EHBildu (y en un apartado también Podemos-Ahal Dugu). Este acuerdo político es importante, porque recoge el reconocimiento y el respeto del derecho a decidir, porque habla de relación con el Estado de igual a igual y porque ofrece oportunidades de realizar el camino a un Marco propio de Relaciones Laborales y Protección Social, que tantas veces ha reclamado el sindicalismo abertzale. Está claro que la estructura del Estado Español y los principales partidos no están dispuestos a aceptar un estatus de esas características. Por tanto, si queremos avanzar por ese camino, serán imprescindibles la activación popular y la confrontación con el Estado, hasta abrir, junto con Catalunya, de una vez por todas la jaula del ’78.

LAB ha reclamado que se concreten ciertos puntos en el texto articulado, para que que se recojan explícitamente instrumentos fundamentales para las trabajadoras y trabajadores; entre otros, un Estatuto

edota funtzio publikoaren lege propioa. Argi dago Confebaskek ez duela inolako interesik ahalmen horiek eskuratzeko, eroso baitago Espainiako legediak bere agenda inposatzeko ematen dizkion baliabideekin. Eta EAJk Confebaskekin daukan harremana ikusita, eduki horiek estatus berriaren diseinutik "erortzeko" arriskua egon badago. Horregatik, momentua da euskal gehiengo sindikalaren aldetik Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako esparru propioaren aldeko borroka eta presioa egiteko, baina zoritxarrez ELAk uko egin dio aukera horri.

de las y los Trabajadores propio, una ley propia de seguridad social o una ley propia de la función pública. Está claro que Confebask no tiene ningún interés en que tengamos esas competencias, se encuentra cómoda con los medios que le otorga la legislación española para poder imponer su agenda. Y, viendo la relación de PNV con Confebask, existe el peligro de que esos contenidos se "caigan" del diseño del nuevo estatus. Por eso, es el momento de que la mayoría sindical luchemos y presionemos por un marco propio de relaciones laborales y protección social, pero, por desgracia, ELA se ha negado a ello.

Nafarroako estatus politikoaren inguruko eztabaida pizteko ekimen instituzionalak ardazten dute burujabetzarako bidea egiteko hautu politikoa. Eta urratsak ikusi ditugu azken hilabeteetan. Nafarroan estatusaren eztabaida egin behar dela erakutsi du (eta aldarrikatu dugu) aurrekontuen tramitazioan inposatutako mugek.

**En Nafarroa** las iniciativas institucionales para avivar el debate sobre el estatus político navarro centran la opción política de recorrer el camino hacia la soberanía. Y durante estos últimos meses hemos visto pasos. Los límites impuestos en la tramitación de los presupuestos han demostrado la necesidad de realizar un debate sobre el estatus de Nafarroa (como hemos reivindicado).

Nafarroan erabakigarriak izango dira maiatzeko hauteskundeak eztabaida politiko eta instituzionala bideratuko duen gobernua edo eskuinaren eskutik azken urteetakoa desegingo duen gobernua dagoelako jokoan. Zer esanik ez EAEn ere garrantzia berezia duten hauteskundeak dira.

En Nafarroa serán decisivas las elecciones de mayo, ya que está en juego tener un gobierno que encauce el debate político e institucional o un gobierno que de manos de la derecha deshaga lo hecho durante estos últimos años. Ni qué decir tiene que también serán unas elecciones de especial importancia en la CAV.



IEHri dagokionez marko propioa eraikitzeko borrokarekin jarraitzen dugu eta urrats moduan ikusten dugu, patronal eta sindikatuen artean elkarrizketa sozialerako gune propio bat sortu izana. Hegoaldeko akordio intersektorialaren parekoa izango litzateke. Orain erronka edukiz betetzea izango delarik.

En lo referente a **Ipar Euskal Herria**, continuamos con la lucha para construir un marco propio y vemos como un paso adelante el que se haya creado un ámbito propio de diálogo social entre patronal y sindicatos. Sería algo similar al acuerdo interprofesional de Hegoalde. Ahora el reto será dotarlo de contenidos.

**Eusko Ikaskuntzak** bere 100. urtemuga baliatu du etorkizuneko Euskal Herriaren oinarriez gogoeta sakona egiteko. Herri gisa pentsatzeko eta eztabaidatzeko aukera egon da eta emaitzak tresna emankorra izango dira gure buruaren jabe egiteko bidea ardazteko garaian.

**Eusko Ikaskuntza** ha utilizado su 100° aniversario para realizar una reflexión profunda sobre las bases de la Euskal Herria del futuro. Hemos tenido oportunidad de pensar y debatir como pueblo y los resultados serán un instrumento importante a la hora de fundamentar la vía hacia nuestra soberanía.

**Herri galdeketak hiri handietan** "Gure Esku Dago"ren ekimenez. Parte hartzearen inguruko ezbaia egon bada ere aurrera urratsa izan da erabakitzeko eskubidearen ariketa herri txikietako eta eremu geografiko jakin batzuetako kontua ez dela erakusteko. EAJk bere balorazioa Gure Esku Ekimenari interpelazio bihurtu du bere buruari begira

**Consultas populares** en grandes municipios a iniciativa de Gure Esku Dago. Aunque haya habido cierta discusión en torno a la participación, ha sido un paso adelante para demostrar que el ejercicio sobre nuestro derecho a decidir no se trata solo de un tema de pequeños municipios y de zonas geográficas muy determinadas. El PNV ha convertido su valoración en

egin beharreko gogoeta bezala hartu beharrean. Aukera bat galdu da erabakitzeko eskubidearen aldeko baldintza sozial eta politikoei buruzko gogoeta sakona egiteko alderdien artean.

una interpelación a Gure Esku, en lugar de tomarlo como una relexión que debería hacer su propio partido. Se ha perdido la oportunidad de realizar una reflexión profunda entre los partidos sobre las condiciones sociales a favor del derecho a decidir.

**Europako hauteskundeetan hautagaitza bateratua** egiteko akordioa egin dute EH Bildu, ERC eta BNGk, beste zenbait indarrekin batera. Estatu propioa eratzeko aurreko urratsa den aitortza politikoa Europan lortzea erabakigarria izango da; borroka hori konpartitzen dugu hainbat nazioek eta urrats garrantzitsua izan daiteke borroka batera egitea. Era berean, Europako ezker esparruan alternatibak eratzeko ekarpena egin dezake hautagaitza horrek.

Se ha acordado acudir con una **candidatura conjunta a las elecciones europeas**, entre EHBildu, ERC y BNG, junto a otras fuerzas. Será decisivo conseguir en Europa el reconocimiento político como paso a construir un Estado propio. Esta reto lo compartimos diversas naciones y puede suponer un paso importante luchar por ello conjuntamente. Asimismo, esa candidatura puede hacer su aportación a construir alternativas dentro del espacio de izquierda de Europa.

Azkenik, “Demokrazia Bai” ekimenak bere bidea egiten jarraitzen du, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko bilgune gisa.

Por último, la iniciativa “Demokrazia Bai” continúa hanciendo su camino, como ámbito de encuentro para que Euskal herria decida su futuro.

## Preso eta iheslariak etxera ekartzeko borroka indartzen

Presoen aldeko mobilizazioari dagokionez aipatzekoa da urrian, Donostian, egindako mobilizazioaren garrantzia. Atxikimendu zabala izan zuen, inoizko zabalena. Esparru sindikalean lehen aldiz hegoaldeko lau sindikatu nagusiak mobilizatu ginen. Hurrengo erronka urtarrileko manifa indartzea izango da.

Estrasburgoko epaiak Donostiako manifestazioak utzitako zapore on guztia lapurtu zigun eta estatu espainiarraren aldetik ematen ari diren urrats urriek ez dute baikor izateko aukera gehiegirik ematen. Era berean, Frantziako Gobernuak pasa den ikasturtean emandako urratsen ondotik, nolabaiteko motelaldia nabaritzen da.

Gatazka politiko eta armatua betirako atzean uzteko azken urrats eman zuen ETAk bere barne aldizkarian. Bere bidearen errepasoa eginez egindako mina aitortu zuen, nazioartetik eta baita bertatik egiten zitzaion eskakizuna betez berriro ere. Aukera paregabea zen behin betirako konponbidearen eraikuntzan iniziatiba instituzional berriak hartzeko baina PNVk bereari eutsi dio Herenegun programa aurkeztuz. Errelatoaren batailan jarraitzeko aitzakia izan da alderdi estatalistentzat, ez du inolako ekarpenik egin Euskal Herriari eta ETAk emandako

## Fortaleciendo la lucha por traer a las personas presas y exiliadas a casa

En lo que respecta a la movilización en favor de presas y presos hay que mencionar la importancia de la movilización que se llevó a cabo en octubre en Donostia. Contó con una amplia adhesión, más amplia que nunca. En el ámbito sindical nos movilizamos por primera vez los cuatro sindicatos principales de Hego Euskal Herria. El reto siguiente será reforzar la manifestación de enero.

La sentencia de Estrasburgo nos cortó de cuajo el buen sabor de boca que nos dejó la manifestación de Donostia y los escasos pasos que se están dando desde el Estado español no nos permiten ser demasiado optimistas. Asimismo, se percibe una ralentización por parte del Gobierno francés, después de los pasos dados en el paso curso.

ETA, en su boletín interno, dio el último paso para dejar atrás para siempre el conflicto político y armado. Reconoció el daño causado cuando hizo el repaso de su recorrido, cumpliendo nuevamente con la reclamación que se le hace desde el ámbito internacional y desde aquí. Era una ocasión única para tomar nuevas iniciativas institucionales en la construcción de la resolución, pero el PNV ha continuado por su camino presentando el programa Herenegun. Para los partidos estatalistas ha supuesto una excusa para continuar en la batalla por el relato,

urratsaren testuinguruan urratsak emateko aukera alferrik galtzea suposatu du.

LABek euskal presoak Euskal Herriratu eta ondoren etxeratzeko borrokan jarraituko du. Ildo horretan, ezinbestekoa iruditzen zaigu lortzen ari diren akordioak jendarte osora eramatea, baita lantokietara ere, eta Espainiako nahiz Frantziako Gobernuak interpelatzeko mobilizazio soziala indartzea, bai urtarrileko manifestazioari begira, baita hortik aurrera ere.

no supone ninguna aportación a Euskal Herria y ha conllevado perder la oportunidad de avanzar en el contexto del paso dado por ETA.

LAB continuará en la lucha por traer a las y los presos a Euskal Herria para luego llevarlos a casa. En este sentido, consideramos imprescindible que se trasladen a la sociedad como a los centros de trabajo los acuerdos que se están logrando, al tiempo que es imprescindible también fortalecer las movilizaciones para interpelar a los gobiernos español y francés, tanto de cara a las manifestación de enero como de ahí en adelante.


LAB